

Año L urtea

N.º 92. zk.

2018



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

**Antropologia Kulturala eta
Etnografia ikastaroa
Luzaide/Valcarlosen**

Suberri MATELO MITXELENA

NOTICIAS

BERRIAK

Antropologia Kulturala eta Etnografia ikastaroa Luzaide/Valcarlosen

Curso de Antropología Cultural y Etnografía en Luzaide/Valcarlos

Course of Cultural Anthropology and Ethnography in Luzaide/Valcarlos

Suberri MATELO MITXELENA

Aranzadi Zientzia Elkarteko Arkeologia Historikoko Departamentuko historialaria
suberri@hotmail.com

1. SARRERA

Ondorengo berriak 2018ko ekainean buruturiko Antropologia Kulturala eta Etnografia ikastaroa Luzaiden jardunaldiaren berri ematen du. Ikastaro hau Aranzadi Zientzia Elkartek eta Luzaideko Udalak antolatu zuten eta ekainaren 17-30 bitartean burutu da. Jardunaldi hau beste proiektu handiago baten barnean kokatzen da, Luzaideko Udalak herriko Seroren Etxean gauzatu nahi duen erakusketa zentroaren barnean, hain zuzen ere. Zentro honek, besteak beste, etnografia eta herriko ondarearen inguruko erakusketa bat edukiko duenez, hau prestatzeko egin da ikastaroa. Batez ere bi atalez osatu da ikastaroa: hasteko alde praktikoa, non pieza ezberdinak jaso diren herrian barrena erakusketa osatu ahal izateko; eta ondoren teorikoa, non hainbat adituren bidez hitzaldi sorta bat eskaini den ondarearekin harremana duten gaiak jorratuz. Horrela, aste horietan ikastarora etorritako ikasleek herriko ondarearekin alderdi praktikoak eta teorikoak landuz, erakusketa muntatze aldera ikerketa gauzatzeko balio izan du.

2. SEROREN ETXEKO ERAKUSKETA ZENTROAREN PROIEKTUA ETA ELKARLANERAKO HITZARMENA

Seroren Etxeko Erakusketa Zentroaren proiektuaren abiapuntua Aranzadi Zientzia Elkartek eta hainbat udalerrik 2015ean sinaturiko elkarlanerako hitzarmenean du.

Bertan, Luzaide, Orreaga, Auritz, Erroibar, Artzibar, Agoitz eta Longida dira parte hartzen duten udalerriak.

Guztiak Piriniotako galtzada erromatarra eta haren inguruko aztarnategi arkeologikoen ikerketa dute ardatz. Horrekin batera inguruko ondare natural eta kulturalaren babeserako eta gizarteratzeko konpromisoa hartu dute.

Udalerri ezberdinetan Aranzadi Zientzia Elkartearen kolaborazioarekin hainbat ekimen burutu dira azken urteotan; horien erakusgarri dira Auritzeko Zaldua, eta Erroibarreko Otegi aztarnategietan eginiko indusketa arkeologikoak edo Artzibarreko jauregiaren inguruan buruturiko eskuhartzeak.

Gizarteratzeari begira, Artzibarreko udalerrian galtzada erromatarraren ibilbidea ibiltarientzako egokitu egin da: balizatu, informazio panelak jarri eta APP bat sortu da. Bestalde, Aurizberrin ikusgai jarri ziren 2011ean aurkituriko erromatar garaiko mugarriak.

Testuinguru honetan Luzaideko herriak bere ondarea gizarteratzeko beharra sumatu zuen. Horrela, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz, udalaren jabetzakoa den Seroren Etxea eraikinean erakusketa zentro bat eta turismorako informazio puntu bat gauzatzeko proiektua martxan jarri zuten. Proiektu horretan eraikinean gauzatzeko hiru gune nagusi edo ardatz daude: herriko ondarea jorratuko duen erakusketa gela bat, 778an Karlomagno eta baskoien arteko gudaren inguruko erakusketa gela bat, eta amaitzeko, turismo bulegoa. Antropologia Kulturala-Etnografia ikastaroa, beraz, aipatu dugun herriko ondarearen erakusketa horrekin dago erlazionatuta.



1. irudia. Luzaideko Seroren Etxea eraikina, erakusketa gelak eta turismo bulegoa edukiko dituen. Egilea: Suberri Matelo Mitxelena.

3. IKASTAROAREN PRESTAKUNTZA ETA HELBURUAK

Seroren Etxean kokatuko den erakusketa ezberdinak prestatze aldera esan behar da proiektu honek hainbat erronkari egin nahi diola aurre:


Hasteko, erakusketa zentroa herrian gune garrantzitsu eta dinamizatzaile bat bilakatzeari nahi da; horretarako beharrezkoa da herritarren nahiak ongi ezagutzeari eta herriaren nolakotasunak bertan ongi islatzeari. Azken finean herriaren ondarearen erakusleho bat izango bada, zer erakutsiko den jakin behar da. Hori gauzatu ahal izateko beharrezkoa ikusten zen Aranzadi Zientzia Elkartetik eta Udaletik herriko ondarea nolatan bildu beharrean ikerketa sakonago bat beharrezkoa zela.

Bestalde, bai erakusketek eta baita informazio bulegoak interesa duen oro informatzeko funtsa eduki behar dute. Gainera, ez da ahaztu behar Luzaiden garrantzitsua dela oso Donejakue bidea egiten pasatzen diren erromesak. Horiei guztiei harrera egiteko eta ongi informatzeko, erakusketek eta informazio bulegoak eskaintzak interesgarriak eta mamitsuak izan behar du, baina kontzentratua eta laburra ere.

Beraz, etnografia eta ondarearen alorreko atala gauzatzeko eta informazio biltzeko Aranzadi Zientzia Elkartearen urte luzeetan martxan egon da proiektu bateko esperientzia profintatu da. Aranzadiko Etnografiako Departamentuko kide eta zuzendari den Fermín Leizaola Calvo etnografoak Gipuzkoan zuzendu eta gauzatu zuen «Zaharkinak» proiektuko formatua berreskuratu eta berriro martxan jartzea izan da asmoa. «Zaharkinak» proiektua Gipuzkoako hainbat herritan burutu zen proiektua izan zen; proiektuaren funtsa honako hau zen: hilabete batez herri bateko ondare etnografikoa biltzen zen etxez etxe, guztia katalogatu, garbitu eta atondu ondoren erakusgarri jartzen zen hilabetez herriko gune publiko batean; ondoren piezak bultatu egiten ziren euren jabeen.

Hau ikusirik, Luzaidarako «Zaharkinak» proiektuko funtsa aurrera eraman nahi izan zen, baina bi asteko ikastaro modura planteatuta eta ikasle ezberdinekin batera. Hau guztia borobiltzeko, ikastaro bitartean hitzaldi sorta bat eskaintzea zen asmoa. Beraz, aditu ezberdinekin hitz egin zen Luzaideko herriarekin zerikusia eduki ahal zuten hitzaldiak eman zitzen.

Horrela, Antropologia Kulturala-Etnografia ikastaroa Luzaiden jaio zen Seroren Etxeko lehen solairuko herriko ondareari buruzko 2. erakusgela antolatzeke lehen urrats bezala.



2. irudia. Ikastaroaren berri ematen zuen egitarauaren azala. Egilea: Aranzadi Zientzia Elkarte.

4. IKASTAROAREN ATAL PRAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK

Ikastaroa ekainaren 17an hasi zen eta ekainaren 30ean amaitu. Aranzadiko Fermin Leizaola Calvo etnografoak eta Suberri Matelo Mitxelena historialariak gidatu zuten bi asteetan ikastaroa. Ikasleak, adin eta ikasketa ezberdinetakoak, Luzaiden hartu zuten ostatu bi asteetan; guztira 12 ikasle egon ziren.

Planteamendua honakoa izan da funtsean: goizetan baserri edo etxe bat bisitatzen zen eta goiza bertan pasatzen zen objektuak jasotzen eta katalogatzen. Arratsaldetan piezak garbitu, txukundu eta datu basea osatzen zen.

Baserri eta etxeetan piezak jaso ahal izateko kontuan eduki da hasieratik proiektu honek herrian eduki zuen aurrekaria. 1996 urtean herriko Itxaro Kultur Elkarteak herriko ondare etnografikoa denbora batez jaso eta erakusgarri jarri zuen Itxaro Elkartearen. Erakusketa horretarako jasotako objektuekin zerrenda bat osatu zen etxez etxe, eta zerrenda hori ikastaroa egiteko baliagarria izan da, aldez aurretik bagenekielako nolako piezak espero genituen etxeetan.

Esan behar da ere goizetako lanerako herriko Elena Goñi eta Mixel Granada oso beharrezkoak izan zirela. Haiei esker bisitatu beharreko etxe bakoitzarekin eta familia bakoitzarekin hitzordua aurrez lortzen zen eta herrikoekin kontaktua izateko apartekoak izan dira hasieratik. Izan ere, herriko bizilagunekin lotura bilatzea izan da ikastaro honen funtsetako bat. Ikastaroko ikasleak eta herritarrak erlazionatzea oso garrantzitsua izan da informazioa batu ahal izateko.

Horrela, ikasle taldeak etxe bakoitza bisitazterakoan bertako ganbara edo sotoetako objektuak ikuskatzen ziren. Hauek hautatuta ikasle bakoitzak etxe-ko objektu bat hartzen zuen eta jabeekin hitz egiten zuen objektuari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Jabeek objektuen jatorrizko izena, erabilera eta pasadizo ezberdinak kontatu dituzte, guztia oso aberasgarria ikasleentzako. Formatu honetan, ikasle bakoitzak pieza ezberdinak ikustea eta landa laneko galdeketa-fitxak betetzen ikasi dute.

3. irudia. Ikastaroko ikasle bat objektuari buruzko azalpenak jasotzen Luzaideko bizilagun baten eskutik. Egilea: Suberri Matelo Mitxelena.



Etxe bateko objektuekin amaitzean, momentuan bertan jabeei zesio horri bat eta inbentario bat entregatzen zitzaien haien etxetik ze objektu hartu genituen jakin zezaten.

Objektu horiek guztiak, ondoren, etiketatu eta herrira eramaten ziren Udalak utzitako Argiola lokalera. Lokal horretan arratsaldean beste lan mota bati ekiten zitzaion. Objektu guztiak, bere nolakotasuna eta materialei erreparatuta, atondu egiten ziren; kontuan hartu behar da pieza asko ganbara edo ukuiluetan aurkitu ditugula, eta beraz zikinik zeudela edo erakusteko modu ezegokian. Eginiko lanean artean dago hautsa kentzea, lixatzea, argizaria ematea, konpontzea, objektu hautsiak batzea... Lan hauek ikasleek burutu zituzten ere, eta pieza bakoitzaren nolakotasunak eta erabilerak hobe ezagutzen lagundu zuten. Egindako garbiketak eta atonketak, ondoren, pieza bakoitzaren fitxan apuntatu dira pieza aurretik eta ondoren nola zegoen jakin ahal izateko.



4. irudia. Kutxa bati argizaria ematen. Egilea: Suberri Matelo Mitxelena.

Bestalde, momentuan eginiko paperezko fitxaz gain, datu base bat osatu da ordenagailuz pieza bakoitzaren fitxarekin. Fitxa horiek ikasleek bete dituzte Fermin Leizaolaren argibideak eta esperientzia jarraituz. Fitxan izena, etiketako zenbakia, deskribapena, erabilera, kontserbazio egoera, eta marrazki eta argazkiak jarri dira, besteak beste. Horrela ikasleek landa lana eta informazioaren bilketa egiten ikasi dute: informazioa batzea, kudeatzea eta piezen ezagutza sakonagoa.



5. irudia. Fitxak betetzeko argibideak jasotzen Fermin Leizaolaren eskutik. Egilea: Suberri Matelo Mitxelena.

5. IKASTAROAREN ALDE TEORIKOAGOA: HITZALDI ETA TXANGOAK

Landa lanaz gain aipatu behar da ikastaroak zuen alde teorikoago edo formalagoa, hitzaldiekin burutu dena. Hitzaldiak Luzaide herriarekin eta bere ondarearekin loturikoak izan ziren, eta aditu ezberdinek eman zituzten herriko zinema zaharraren aretoan. Honakoak izan ziren hizlari eta gaiak:

- Suberri Matelo Mitxelena: «Proiekturen aurkezpena eta ikastaroaren helburuak».
- David Mariezkurrena: «Mitoak eta elezaharrak Luzaide/Valcarloseko ahozko tradizioan».
- Xabier Kerexeta: «Mugaz gaindiko mikrolurraldeak».
- Fermin Leizaola: «Sukalde tradizionala eta bere ekipamendua».
- Fermin Leizaola: «Artzantza eta abeltzaintza estentsiboa Pirinioan».
- Xabier Irujo: «Errozabal 778».
- Jose Etxegoien: «Luzaide, ibilbide luzea historian».
- Mikel Ozkoidi, Karlos Irujo: «Ondare kultural materiagabeko izendapenak». Dantzatlasa, ondare bilketaren adibidea».
- Xamar: «ETXEA. Ondarea. Historia. Mintzoa».
- Ane Albisu: «Ospakizunetarako jantziak, 100 urteko garapena».

Bestalde, hitzaldiez gain bi bisita gidatu egin dira inguruak ezagutzeko eta bertako ondarea hobeto testuinguratzeko. Horiek biak ere ikastaroarekin lotutakoak izan dira eta gaiari buruzko bi adituekin burutu dira:

- Fermin Leizaola: Aezkoa ibarreko piriniar motako garaiak ikusteko bisita gidatua.
- Juan Mari Martinez Txoperena: Oinezko txangoa Luzaidetako inguruak ezagutzeko, Epersaroko trikuharria eta artzain borda ikusiz.



6. irudia. Epersaroko trikuharria bisitatzen Juan Mari Martinez Txoperenarekin. Egilea: Suberri Matelo Mitxelena.

Hitzaldi eta txangoen helburuak, besteak beste, bi izan dira: alde batetik herriko ondarea agerian jartzea bilatzen zen, beti ere bertako eta kanpoko adituen eskutik; Horrela, aditu eta ikasleekin nahiz herritar ezberdinekin ekarpenak egin ahal izan dira. Bestalde, bigarren helburua ikasleak eta herritarrak lantzen ari ziren ondarearen inguruan gehiago ikastea izan da helburua; hitzaldiak herrikoentzat edo interesa zuen edonorentzat guztiz irekiak izan zirenez, esperientzia are eta aberasgarriagoa izatea lortu zen.

Herrian bereziki ezagunak dira dantzak edo ogibide tradizional batzuk (artzantza edo eskalapineileak, kasu) baina hitzaldiekin gai hauek beste ikuspuntu batetik landu dira. Esate baterako, Fermin Leizaolak emandako hitzaldian sukalde edo artzantzari buruz hitz egiterakoan Luzaide eta beste herriko adibide zuzenak ikusi ahal izan ziren. David Mariezkurrenak, Mikel Ozkoidik eta Karlos Irujok aurkezturiko gaietan Luzaide zuzenago landu zuten eta herriko ondare immateriala diren ahozko tradizioa eta dantzak landu zituzten.

Bestalde, Ane Albisu, Xabier Kerexeta eta Xamarrek haien ikerketa lanetatik lorturiko informazio eta emaitzak Luzaiderekin erlazionatu eta konparatu zituzten; horrela, mugan dauden herrien inguruan, festetako dantzez edota herriko etxeen nolakotasunez mintzatu ziren, ikasleentzako eta herrikoentzako aberasgarria izanik.

Azkenik, Jose Etxegoienek, Xabier Irujok eta Juan Mari Martinez Txoperenak eskainitako hitzaldi eta txangoetan historiari buruzko erreferentzia zuzenagoak egin zituzten. Herriko garai desberdinetako historia landu zen, Historiaurretik hasita Erdi Aroa jorratuz eta azken mendeetako aldaketak errepasatuz. Modu honetan ikasleek herria hobe ezagutzea lortu dute eta herritar askok euren herriari buruzko gauza berriak ikastea ahalbideratu da.

Aipagarria da hitzaldietan herritarrek eta ikasleek eginiko partehartzea ere. Hori, hasieratik bilatzen zen ezaugarrietako bat zen, baina azpimarragarria izan da interbentzio guztien kalitatea eta ikasteko eta sakontzeko eman duten aukera.



7. irudia. Aezkoako garaiak bisitatzen Fermin Leizaolaren azalpenekin. Egilea: Suberri Mateo Mitxelena.

6. IKASTAROAREN EMAITZAK

Ikastaroa egin ondoren eta bi asteak amaituta, analisi eta balantze positiboa egin da. Bilketari dagokionez, guztira 370 objektu bildu dira eta 25 etxe, ganbara eta sototik gora bisitatu dira. Honekin batera hainbat ofizio, lan eta jarduera ezberdinetako objektuak bildu direla esan daiteke, honako gaien barnean txertatzen direlarik objektuok:

- Sukaldeko tresnak eta elikagaiekin lotutako tresnak.
- Etxeko objektuak (altzariak, garbiketako tresnak).
- Arkitektura objektuak (ateak, leihoak, teilak).
- Nekazaritzako lanabesak.
- Abeltzaintzako lanabesak.
- Lanbide edo artisautzarako lanabesak.
- Merkataritza edo garraiorako tresnak.
- Objektu pertsonalak, erlijio objektuak, objektu sozialak eta ospakizuneratakoak.
- Oroitzapen eta apaingarriak.
- Jantzak eta ehunak.

Bereziki esan dezakegu sukaldeko tresnak eta lanbideekin erlazionaturiko tresnak izan direla gehiengoa, azpimarratu behar delarik Eskalapineile ofizioari buruz baturiko objektuak, bildumaren herena izan direlako (150 objektutik gora). Lanbide hau galduta badago ere, ongi jasota dago Juan Garmendia Larrañagaren «El eskalapineilia de Valcarlos» lanean, eta bilketa honi esker bertan aipatzen eta agertzen diren prozesu eta tresnak fisikoki dokumentatzea eta deskribatzea lortu da.



8. irudia. Ikastaroko ikasleak eta jasotako tresna batzuk. Egilea: Suberri Matelo Mitxelena.

Bestalde, ikerketari begira, herriak gordetzen duen ondare etnografikoa espero baino aberatsagoa eta oparoagoa dela esan behar da. Gaur egun zaila bada ere, oraindik gordetzen dira bizimodu tradizionalaren erakusgarri diren objektu eta tresnak, eta horiek izugarritzko informazioa ematen dute herriaren historia hurbila eta egoera sozialak ikertzeko. Beraz, Seroren Etxeko erakusgelarako jasotako piezekin nahikoa informazio eta mami dagoela esan behar da.

Ikasleen aldetik esperientzia positibotzak kalifikatu da ikastaro hau. Azken finean unibertsitatetik datozen ikasle askok edota beste ogibide batzuk eduki eta Antropologia Kulturalan zaletasuna eduki dezaketen askok aukera gutxi dute landa lana edota praktikak gai honen inguruan burutzeko, eta ikastaroak hori bideratzeko asmoa zuen.

Beraz, amaitze aldera, esan behar da esperientzia honek aditzera ematen duela oraindik ere lan ugari egin daitekeela Etnografiaren eta Antropologia Kulturalaren alorrean gure inguruko herrietan.